

## ZALDIBIAN ENERGIA KOMUNITATEA ERATZEKO PROZESUA

### Bigarren saioko akta (Ekainak 19)

#### ONGIETORRIA ETA SAIOAREN KOKAPENA:

Aholkularitza teknikitik ongi etorria ematen zaie bertaratuei. Zaldibian Energia komunitatea sortzeko prozesuaren bigarren saioan gaudela argitzen da.

Prozesuak, lau saio izango dituela gogorarazten da.:

- Ekainak 5 (egina)
- Ekainak 19 (gaurkoa)
- Uztailak 10
- Irailean (data zehaztu gabe)

Bigarren saioaren edukietan sartu aurretik lehen saioan egindako lana laburtzen da: Alde batetik bertaratuen motibazioak ezagutzeko erronda bat egin zen, bestetik Zaldibiako Udalak energiaren gaian egindako ibilbidea azaldu zen, amaitzeko Nazertekeko Josebak Energia Komunitateak zer diren, zein helburu dituzten eta ze eredu dauden azaldu zuen. Azalpen ostean herritarren galderentzako tarte bat eskaini zen.

Lehen saioaren laburpenaren ostean, gaurko saioaren helburuak azaldu ziren:

- Zaldibian egin daitezkeen proiektu posibleen lehen mapatzea egitea. Teilatuen mapatzea (industria-gunera edo bestelako aukera “handiak”)
- Teilatu “handien” aldeko apustua argudiatzea
- Industria-guneko teilatuen inguruko azalpenak ematea: ze gaitasun, ze onura, etab.
- Teilatuen jabeekin egindako lehen kontaktuen berri ematea.

#### ENERGIA KOMUNITATEAK: TEILATUEN MAPATZEA

Nazertek Aholkularitzako Josebak hartzen du hitza. *(Aktarekin batera Nazertek-en aurkezpena).*

Zaldibian instalazio fotoboltaikoak egiteko egon daitezkeen aukera ezberdinak azaltzen ditu, horretarako osatu duen teilatuen mapatze bat oinarri izanda. Dena den, teilatuen mapatzearekin hasi aurretik, lehen instalazio honetarako teilatu “handiak” aukeratzearen aldeko argudioak azaltzen ditu.

Teilatuen mapatzearen azalpen zabala egiten du Josebak. Enpresekin harremanari dagokionez, saiakera egin duen arren, momentuz Logos Kooperatibako kideekin bakarrik lortu du lehen elkarrizketa bat. Elkarrizketan jasotako kontuan izanda, lankidetzarako aukerak egon daitezkeela uste du. Azalpenen ostean gogoeta-galdera erronda abiatzen da.

- Oro har, gerturatutako herritar guztiek egoki ikusten dute Teilatu handiekin hastearren idea.
- Josebaren azalpenak egoki ulertu arren, oraindik bide asko geratzen denaren sentsazioa plazaratzen dute zenbaitek (enpresen interesa konfirmatu, haiekin negoziatu, lagapena adostu, interesa izan dezaketen herritarrak lortu / antolatu, etab.)
- Komunitatea eratzeko hurrengo pausoak ematen joan ahal izateko bi norantza nagusi egon daitezkeela aipatzen da Aholkularitza Teknikotik:
  - Alde batetik herritarrak aktibatzea eta hauen beharrak ezagutzea (kontsumoen inguruko ezagutza lortuta fakturen azterketarekin), behin herritarrak eta hauen beharrak ezagututa behar hauek asetzeko teilatu bat lortzea.
  - Bestetik, teilatuen aukera “errealitatera” ekartzea. Hau da, esaterako Logosekin lotzen jutea teilatua eta ikustea teilatu horrekin zenbat herritarren beharrak asetu daitezkeen (bakoitzak kWh bat). Horrela jakinik zenbat kWh-sortu daitezkeen teilatu horretan, behar dugun herritar kopurua zehaztu daiteke.

Josebak aipatzen du bi bideak ez dutela zertan elkar-baztertzailleak izan eta komeniko litzatekela biak paraleloan lantzean.

- Herritarrek zenbaitzuk aipatzen dute beste herritarrak motibatu eta energia komunitatean parte-hartzera gonbidatzeko oso lagungarria izango litzatekela bigarren bidea jorratuago egotea. Horrela proposamen, proiektu errealago batekin gerturatzen baikara herritarrengana. (Teilatu hau daukagu, hainbeste ekoizten du, bakoitzak kWh bat jasotzeko aukera izango genuke, inbertsio posiblea hau da eta retornoa X urtetan izango genuke)
- Uztailaren 10eko saiorako aurre-proiektu bat lantzea adosten da (ziurrenik Logoseko teilatuarekin, baina gainontzeko beste enpresak ere bisitatuko dira, oraingoan ez bada ere etorkizuneko aukerak esploratzeko eta haien energia beharrak ere ezagutzeko)
- Aurreproiektu honetan bideragarritasun tekniko eta ekonomikora ere gerturatuko gara.
- Amaitzeko, uztailaren 10an aurre-proiektua aurkeztuta gainontzeko herritarretara iristeko moduak arakatuko ditugu elkarrekin.

#### SAIOAREN ITXIERA:

Azalpen eta galdera erronda bukatuta parte-hartzaileei eskerrak emanez ixten da saioa. Gogorarazten da Uztailaren 10ean izango dela hirugarren bilera. 2. saioaren akta eta dokumentu osagarria Udalaren webgunean jarriko direla adosten da.